IRAGARKIA, Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoan ezarritakoarekiko arau-hausteak direla-eta irekitako eta beherago zehaztutako zehapen-espedienteen instrukzio-egileak, Segurtasun Sailburuordetzaren Kabineteko zuzendariak, emandako ebazpen-proposamenak jakinarazteko dena. 13245

IRAGARKIA, Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoan ezarritakoa haustearren irekitako zehapen-espedienteetan Segurtasun Sailburuordetzaren Kabineteko zuzendariak emandako probidentziak jakinarazteko dena. 13246

IRAGARKIA, Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoan ezarritakoa haustearren, zehapen-espedienteak irekitzen dituzten Segurtasun Sailburuordetzako ebazpenak jakinarazteko dena. 13247

ANUNCIO por el que se notifican las Propuestas de Resolución del Director del Gabinete de la Viceconsejería de Seguridad, instructor de los expedientes sancionadores que abajo se indican, incoados en relación a infracciones de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana. 13245

ANUNCIO por el que se notifican providencias del Director del Gabinete de la Viceconsejería de Seguridad, dictadas en expedientes sancionadores relativos a infracciones de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana. 13246

ANUNCIO por el que se notifican las Resoluciones de la Viceconsejería de Seguridad incoatorias de los expedientes sancionadores abajo indicados, con relación a infracciones de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana. 13247

# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### 3119

89/2008 DEKRETUA, maiatzaren 20koa, Euskadiren Kolonbia eta Venezuelarako Ordezkaritza sortu eta arautzen duena.

Otsailaren 11ko 26/2003 Dekretuaren bitartez, Euskadiren Venezuelako Ordezkaritza sortu eta arautu zen. Geroago, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko martxoaren 15ean Euskal Autonomia Erkidegoaren Kanpo Harremanetarako Estrategia onartu zuen eta VIII Legegintzaldian Eusko Jaurlaritzak kanpo harremanen alorrean burutu beharreko jardun-ildoak planifikatzea erabaki zen.

Kanpo Harremanetarako estrategia horren jarduera ardatzen artetik, honako hauek nabarmendu behar ditugu: euskal gizataldeekiko harremanak; garapen lankidetza; nazioarteko erakunde aldeaniztunetan parte hartzea; ekonomia, industria eta kultura sustatzea; edo Euskadik atzerrian dituen ordezkaritzak. Estrategia horren arabera, hain zuzen, Euskadiren Latinoamerikako ordezkaritzen egitekoak kontuan hartu beharko du ordezkaritza bakoitzaren eragin-eremu bat sortzea, hurbileko herrialdeetan sektoreko jarduketak egin ditzan, eta ordezkaritzak kokatutako herrialdeetatik hiru aldeko lankidetzan jarduteko aukera aztertzea.

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### 3119

DECRETO 89/2008, de 20 de mayo, por el que se crea y regula la Delegación de Euskadi para Colombia y Venezuela.

Por Decreto 26/2003, de 11 de febrero, se creó y reguló la Delegación de Euskadi en Venezuela. Con posterioridad, el Consejo de Gobierno de 15 de marzo de 2005, aprobó la Estrategia de Acción Exterior de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se determinó la planificación de las Líneas de actuación del Gobierno Vasco en materia de Acción Exterior para la VIII Legislatura.

Entre los ejes de actuación de esta Estrategia de Acción Exterior destacan las relaciones con las Colectividades Vascas, la cooperación al desarrollo, la participación en Organismos Internacionales Multilaterales, la promoción económica, industrial y cultural o las Delegaciones de Euskadi en el exterior. Concretamente, establece que la labor de las Delegaciones de Euskadi en América Latina ha de tener presente la creación de una zona de influencia para cada Delegación que permita actuaciones sectoriales en países geográficamente próximos, estudiando la posibilidad de desarrollar una cooperación triangular desde los países donde están emplazadas las Delegaciones.

Ildo horretan, Venezuelako Ordezkaritza sortu zenetik igarotako denborak erakutsi du komenigarria dela Kolonbia eta Venezuelako herrialdeak jarduera esparru izango dituen ordezkaritza bat sortzea, herrialde horietan batera eragin eta jarduteko. Latinoamerikako gainontzeko herrialdeek bezala, bi herrialde horiek ere egoera txarra bizi dutenez, komenigarria da Venezuelarekiko harremanak estutzea eta Kolonbiarekikoak indartzea, batez ere, garapen lankidetzan, euskal gizataldeekiko laguntzan eta harreman sozio-ekonomiko eta kulturaletan.

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarako 8/1994 Legeak helburutzat hartu zituen, besteak beste, gizarte, kultura eta ekonomia harremanak instituzionalizatzea eta atzerrian bizi diren euskaldunei bultzada eman eta babestea.

Garapen lankidetzarako alorrean ere otsailaren 22ko 1/2007 Legeak lankidetzaren helburutzat hartzen du giza garapen iraunkorra sustatzea eta txirotasuna sortzen duten egiturak aldatzea. Euskal administrazio publikoen zeregina da beren jardueren koherentzia eta koordinazioa zaintzea, helburu horretarako baliabide publikoak egoki erabili daitezen. Euskal Autonomia Erkidegoak elkartasunezko konpromiso iraunkorra du garapen bidean dauden herrialdeekin, eta aurrekontu operatiboaren % 0,7 ematen die.

Bi herrialde horietako garapen lankidetzak duen garrantziak, bi herrialdeotan euskal gizataldea ugaria izateak, bestelako zenbait eskumen alorretan dagoen lankidetzak eta, batez ere, eraginkortasunak gomendatzen dute Venezuelako Ordezkaritza bertan behera uztea eta Kolonbian eta Venezuelan jardungo duen beste ordezkaritza bat sortzea.

Horren ondorioz, Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko maiatzaren 20an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Sorrera.

Euskadiren Kolonbia eta Venezuelarako Ordezkaritza sortu da, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren barruan.

*2. artikulua.–*Aplikazio eremua.

Euskadiren Kolonbia eta Venezuelarako Ordezkaritza da Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkaritza organoa garapenerako lankidetzari, euskal gizataldeekiko harremanei eta sektore anitzeko interesen defentsa eta sustapenari dagokienez, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen baitan.

En este sentido, el tiempo transcurrido desde la creación de la Delegación de Venezuela ha puesto de manifiesto la conveniencia de crear una Delegación cuyo ámbito de actuación abarque a los países de Colombia y Venezuela, como zona de influencia y actuación conjunta. Al igual que ocurre con el resto de países de Iberoamérica, la situación desfavorable por la que atraviesan estos países aconseja reforzar y estrechar los lazos con Venezuela e impulsar las relaciones con Colombia, fundamentalmente en materia de cooperación al desarrollo, atención a las colectividades vascas y relaciones socio-económicas y culturales.

A estos efectos, La Ley 8/1994, de mayo, de Relaciones con las Colectividades y Centros Vascos en el exterior de la Comunidad Autónoma del País Vasco marcó, entre sus objetivos, el de institucionalizar las relaciones sociales, culturales y económicas y el de fomentar y proteger a los vascos en el exterior.

También en el ámbito de cooperación al desarrollo la Ley 1/2007, de 22 de febrero, consagra como objetivo de la cooperación la promoción del desarrollo humano sostenible y la transformación de las estructuras que generan pobreza, correspondiendo a las Administraciones Públicas Vascas velar por la coherencia y coordinación de sus actuaciones, en aras a garantizar una gestión eficiente en la disposición y aplicación de los recursos públicos destinados a este fin. La Comunidad Autónoma de Euskadi tiene un permanente compromiso solidario en los países en desarrollo, y a ellos destina el 0,7% del presupuesto operativo.

La importancia de la cooperación al desarrollo en ambos países, la presencia, también en ambos, de una importante colectividad vasca, la colaboración ya existente en el ámbito de otros títulos competenciales propios, unido a razones de eficacia y sobre todo de eficiencia, aconsejan suprimir la Delegación de Venezuela y crear una nueva Delegación cuyo ámbito de actuación abarque Colombia y Venezuela.

En su virtud, y a propuesta de la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 20 de mayo de 2008,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Creación.

Se crea, en el seno de la Secretaría General de Acción Exterior, la Delegación de Euskadi para Colombia y Venezuela.

*Artículo 2.–* Ámbito de aplicación.

La Delegación de Euskadi para Colombia y Venezuela es el órgano de representación de la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de Cooperación al Desarrollo, de relaciones con las Colectividades Vascas y de defensa y promoción de intereses multisectoriales en el ámbito de las competencias que corresponden a la Comunidad Autónoma de Euskadi.

*3. artikulua.*– Eginkizunak.

Aurreko artikuluan zehaztutako eremuaren barruan, Euskadiren Kolonbia Venezuelarako Ordezkaritzak zeregin hauek izango ditu:

– Euskal Autonomia Erkidegoak Kolonbian eta Venezuelan dituen gizarte eragileen arteko lankidetza sustatzea eta horien bilgune izatea.

– Bisitaldiak, bilerak eta informazio trukeak egiteko harreman organoa izatea.

– Euskal Autonomia Erkidegoko eragileei Kolonbia eta Venezuelan bilkurak egiteko azpiegiturak eskaintzea eta horiei laguntzeko zentroa izatea.

– Euskal Autonomia Erkidegoko zerbitzu eta jarduerei buruzko aholkularitza teknikoa, orientazioa eta informazioa ematea.

– Euskal Autonomia Erkidegoko eragileek Kolonbia eta Venezuelan izango dituzten beharren aurreikuspenak balioztatzea eta dagozkien proposamenak bideratzea.

*4. artikulua.*– Euskadiren Kolonbia eta Venezuelarako Ordezkaritzaren titularrak.

1.– Euskadiren Kolonbia eta Venezuelarako Ordezkaritzaren titularrak zuzendari maila izango du ekainaren 30eko 7/1981 Legean aurreikusitako ondorioetarako.

2.– Jaurlaritzako Lehendakaritzaren eta Ogasun eta Herri Administrazio Saileko organoen mende jardungo du Euskadiren Kolonbia eta Venezuelarako Ordezkaritzaren titularrak eta honako zeregin hauek izango ditu bere alorrean:

a) Kolonbian eta Venezuelan bizi diren langileak kontratatzea eta enpresaburuaren eskumenez baliatzea bai langileen aurrean eta langileen ordezkarien aurrean, bai erakunde publiko eta pribatuen aurrean ere.

b) Kontratazio-organo izatea, bai Herri Administrazioen kontratuei buruzko legedian araututako kontratu txikietan, bai higiezinen errentamendu-kontratuetan, Euskadiko Ondareari buruzko azaroaren 8ko 2/2007 Legearen 41. artikuluko a) eta b) letretan aurreikusitakoaren arabera.

c) Herri Administrazioetan Eusko Jaurlaritza ordezkatzea ordezkaritzak behar bezala funtzionatzeko behar diren tramite guztietan, eta bereziki, zergen gestioan eta ordainketan eta lizentziak eta baimenak lortzeko unean.

*5. artikulua.*– Ordezkaritzaren egoitza.

Ordezkaritzaren egoitza Kolonbian edo Venezuelan ezarri ahalko da.

*Artículo 3.*– Funciones.

Con carácter general, corresponde a la Delegación de Euskadi para Colombia y Venezuela, en el marco de actuación señalado en el artículo anterior, las siguientes funciones:

– Promover la colaboración y el encuentro entre los agentes sociales de la Comunidad Autónoma de Euskadi en Colombia y Venezuela.

– Servir de órgano de relación para el establecimiento de visitas, encuentros, e intercambios de información.

– Servir de infraestructura y de centro de apoyo para el establecimiento de encuentros en Colombia y Venezuela entre operadores de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

– Asesoramiento técnico, orientación e información sobre los servicios y actuaciones de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

– Evaluar las previsiones de las necesidades de los operadores de la Comunidad Autónoma de Euskadi en Colombia y Venezuela y canalizar las propuestas correspondientes.

*Artículo 4.*– Persona titular de la Delegación de Euskadi para Colombia y Venezuela.

1.– La persona titular de la Delegación de Euskadi para Colombia y Venezuela tendrá, a los efectos previstos en la Ley 7/1981, de 30 de junio, el rango de Director o Directora.

2.– Bajo la dependencia funcional de los órganos correspondientes de la Presidencia del Gobierno y del Departamento de Hacienda y Administración Pública, la persona titular de la Delegación de Euskadi para Colombia y Venezuela ejercerá, en su propio ámbito, las funciones referidas a:

a) Contratar personal laboral residente en Colombia y Venezuela y ejercer las facultades propias del empresario ante los trabajadores y sus representantes y ante las instituciones públicas y privadas.

b) Actuar como órgano de contratación en los contratos menores regulados en la legislación de contratos de las Administraciones Públicas, y en los contratos de arrendamiento de inmueble en los términos previstos en las letras a) y b) del apartado 2 del artículo 41 del Texto Refundido de la Ley del Patrimonio de Euskadi, aprobada por el Decreto Legislativo 2/2007, de 8 de noviembre.

c) Representar al Gobierno Vasco ante las Administraciones Públicas en todos los trámites que sean necesarios para el funcionamiento habitual de la Delegación y, en particular, para la gestión y pago de tributos y obtención de licencias y autorizaciones.

*Artículo 5.*– Sede de la Delegación.

La sede de esta Delegación podrá establecerse en Colombia o en Venezuela.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehenengoa.*– Euskadiren Kolonbia eta Venezuelarako Ordezkaritzak, zuzendaritzaren maila organikoa izanik, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren mende jardungo du zuzen-zuzenean eta hierarkikoki. Era berean, Kanpo Harremanetarako zuzendariarekin koordinaturik egingo du lan.

*Bigarrena.*– Euskadiren Kolonbia eta Venezuelarako Ordezkaritzak funtzionatzeko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak izango ditu.

*Hirugarrena.*– Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari baimena eman zaio Euskadiren Kolonbia eta Venezuelarako Ordezkaritza abian jartzeko neurriak har ditzan beharrezko izapideak egin eta gero.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratuko dira maila berdineko edo txikiagoko arauak, dekretu honetan araututakoaren aurka badoaz, eta, batez ere, Euskadiren Venezuelako Ordezkaritza sortu eta arautzen duen otsailaren 11ko 26/2003 Dekretua.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Lehendakaritzak dekretu hau garatzeko eta gauzatzeko behar diren xedapenak emango ditu.

*Bigarrena.*– Ogasun eta Herri Administrazio Sailak dekretu honetan xedatutakoa betetzeko behar diren aurrekontu eragiketak egingo ditu.

*Hirugarrena.*– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko maiatzaren 20an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.*– La Delegación de Euskadi para Colombia y Venezuela, con nivel orgánico de Dirección, actuará bajo la dependencia directa y jerárquica del Secretario General de Acción Exterior y en coordinación con el Director de Relaciones Exteriores.

*Segunda.*– La Delegación de Euskadi para Colombia y Venezuela dispondrá de los medios materiales y personales necesarios para su funcionamiento.

*Tercera.*– Se faculta a la Secretaría General de Acción Exterior para, previos los trámites oportunos, adoptar las medidas necesarias para la puesta en funcionamiento de la Delegación de Euskadi para Colombia y Venezuela.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas todas las disposiciones de igual o inferior rango que se opongan al presente Decreto y en particular el Decreto 26/2003, de 11 de febrero, por el que se crea y regula la Delegación de Euskadi en Venezuela.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– La Presidencia del Gobierno – Lehendakaritza, dictará las disposiciones precisas para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Segunda.*– El Departamento de Hacienda y Administración Pública realizará las operaciones presupuestarias necesarias para dar cumplimiento a lo dispuesto en este Decreto.

*Tercera.*– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 20 de mayo de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.